

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko OTSAILA · 341 zenbakia

**Makis 37,
historia egin
nahian**





ZUREKIN BATERA
IREKITZEN DUGU
EGUNERO,
zure negozioia
bultzatzeko

Garibolo
jatetxea,
1986az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.



HARTZAREN EGUNA

Zatoz leko jantzieta!

2025

**Otsailaren 28an
18:30ean
Santixapeko iturrian**

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

Bertoko kantuak Herritarron ahotik

Gaia: Aratusteak

Eguen Zuriko

(Entzuteko: www.alboka.es)

drogeteniturri.eus



Eguen Zuriko eguna
Jainkoak berak egina,
eskola-mutilak ibiltzeko
limosna on baten bila.

Solomo gerri luzie
haren koipie dultzie,
zatirik kentzen ibili barik
ekarri eizu guztixe.

Hor goixen-goixen goldie
haren gaiñien belie,
etxe honetako nagusi jauna
nekazari langillie.

Poltsan badituz errial bi
batak bestia dirudi,
etxe honetako etxeoandriak
Ama Birjina dirudi.

Horra hor goixen piñue
usabak eisku kiñue,
usabandriak emongo dau ta
tabernarako dirue.

Etzeko andre mondrongo
hik ezton asko emongo,
hik emotunuan limosniagaitxik
etxonau asko edango.

Emongo bozu emoizu
bestela ezetz esaizu,
ate ondoko haiziok hartzen
amak ez gaitxu bialdu.



Euskal
Birusa
Elkarteak

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ane Galindo (@gago.bisuala).

LAGUNTZAILEAK:

Ermua BHI, Patxi López,
Alicia Lorenzo eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Laura Cruz, Miren Cruz, Nagore
Espilla, Ane Galindo, Nora Gaston,
Estibalitz González, Ane Miren
Mirandona, Valentin Mugarza,
Ignacio Pérez, Jose Cruz Urreta,
Javi Vidal, Dorleta Vidal
eta Ainhoa Yarza.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Alex Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Nagore Espilla · Querétaro (Mexiko)

“Bueltatzen garenean, hemengo argitasuna eta asteburueta isiltasuna botako ditugu faltan”

Lan proposamen bat onartu eta gero, Nagore Espilla ermuarra Mexikora joan zen 2022ko uztailean, senarrarekin eta hiru alabekin batera. Bi urteko egonaldia egiteko asmoa zuten, baina azkenean hiru urte emango dituzte etxetik kanpo eta aurtengo abuztuan bueltan egongo dira.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI** eta **DORLETA VIDAL**

Erraza izan zen urtebete gehiago geratzeko erabakia hartzea?

Urte eta erdi pasa generamala hartu genuen erabakia. Oraindik abentura hasi berria genuen sentazioa geneukan, eroso geunden, disfrutatzen, eta bueltan pentsatu beharrean momentuaz gozatzea erabaki genuen. Umeak ere ondo ikusten genituen, nahiz eta eurek, bi urte egin ondoren, bueltatzea nahiago zuten.

Nolako da Querétaro?

Mexikarrentzat hiri txikia da, dena konparatzen dutelako Mexiko Hiriarekin. Miloi bat pertsonatik gora bizi gara, eta gehienok etxebizitza familiabakarretan:


pentsa zer nolako hedadura duen! Kotxearekin mugitzen gara leku guztietara, baina ohitu gara. Segurtasunari dagokionez, nik neuk ez dut egoera larririk bizi izan, baina aurrez neurriak hartzen ditudalako, agian.

Mexikoko kultura ulertzeko eta harekin gozatzeko aukera izan duzue?

Bai, egunero ikasten dugu zerbait: lanean, auzoan, eskolako komunitatearekin... Mexiko oso zabala da eta zona ezberdinetako jendearekin egin dugu topo, hemen ez dute jaioterriarekiko guk dugun atxikimendua. Herri txikietan ohitura zahar gehiago dituzte hirietan baino, hor bezala.



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



JULEN
JULEN IZARRA GARRAIOAK
Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339



AMAIA HARATEGIA
Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Bi urte eta gero, bertakoekin harremanak ere sendotuko zenituzten. Lortu duzue zuen taldetxoa sortzea?

Gizartea oso irekia da, eta baditugu hainbat taldetxo errotuta. Hala ere elkartzeko era ezberdina da, horko hiri handietan bezala. Aurretik hitzordua egin beharra daukazu, norbaiten etxean edo aretoren batean. Hori bai, planak di-da antolatzen dituzte.

Hizkuntza aldetik, erraza izaten ari da euskarari eustea?

Umeek gero eta gaztelaniarako joera handiagoa dute. Txikienak batez ere. Ia-ia bizitza erdi egingo du Mexikon eta erraztasun handiagoa du gauzak espainolez azaltzeko euskaraz baino. Ordu asko pasatzen dituzte eskolan eta eskolaz kanpoko ekintzetan espainolez harremantzen, eta auzoko jolaskideekin baita. Etxeko jatorduan eta gutxi gehiagotan entzuten dute euskara. Gurasoen erreferentzia dute soilik, eta asteburuetan beste norbaitekin plana eginez gero, gurasook ere espainolez entzuten gaituzte. Banuen horren beldurra, baina nola erremediatu!

Elkarrizketa egin genizun bertan urte erdi zeneramanean, eta eguraldiaz eta gastronomiaz hitz egin genuen. Zer diozu gaur egun eguraldiaz? Lehen bezain gustuko duzu?

Bai, baina aurrekoan ez nituen ezagutzen hemengo apirileko eta maiatzeko bero larriak. Eguzki izpiek kiskali egiten dute azala!

Gastronomiari dagokionez, zein elikagaik osatu dute zuen dieta azken urteotan?

Bazkaldu mexikar menua jaten dugu, umeek eskolako jantokian eta guk lanean, eta afaldu horko antzera, nahiz eta elikagai batzuk falta. Artozko opilak eta guakamolea gehitu ditugu dietara eta arraina, porruak eta lekak kasik ezabatu.

Erraza da produktu freskoak erostea?



Nagore Espilla Guanajuato herrian.

Frutak eta barazkiak bai, aukera oso zabala dago, eta kalitatekoa. Arrain barietate gutxi dago ordea, izoztua eta zapore gutxikoa.

Zeintzuk dira hango fruta eta barazki tipikoak?

Mangoa, papaia, guaiaba, tuna, platanoa, ahuakatea, *jíkama* eta limoia. Exotikoen artean: *pitahaya* (dragoiaren fruitua bezala ezagutzen dena), *carambola* (izar formaduna) eta *rambutána* (barrutik mahatsaren testura duena).

Bi urte eta erdi hauetan, zenbat bider etorri zarete Ermura?

Urtero itzuli gara Gabonetan eta udan. Gustura joaten gara, familia eta horko lagunak ikusteko irrikaz. Egun gutxi eta lagun asko! Baina gero pena gabe bueltatu izan gara, hemen ere etxean gaudela sentitzen baitugu.

Etxekoak ere bisitan joan zaizkizue?

Bai, gertukoena etorri zaizkigu. Gurasoak, anaia, aitagarreba eta amagarreba eta koinatu-koinatak umeekin. Azken hauekin asko bidaiatu genuen eta ederra izan zen. Umeak pozarren zeuden lehengusuekin hau dena partekatzen.

Noiz bueltatuko zarete?

Abuztu amaieran dugu itzulerako bidaiia. Ikasturte berria hor hasteko prest!

Bueltatzen zaretenean, egongo da zerbait faltan botako duzuna?

Hemen egindako lagunak, dudarik gabe. Hemengo argitasuna, asteburuetako isiltasuna, takoak, urte guztian praka motzak janzteko aukera eta hemengo etxeen zabaltasuna.

“Zuzenekoetan gure nortasuna erakusten dugu, gure arima”

Makis 37 · Musika taldea



Alex Gonzalez eta Julen Gutierrez ermuarrek eta Gaizka Uranga eta Miguel Beraza elgoibartarrek osatzen dute Makis 37, punk rock talde gaztea. Martxoaren 2an, estudioko bigarren diskoa kaleratuko dute, *Eromenarekin ihesean*, eta otsailaren 5ean, lan horren aurrerapen kanta estreinatu zuten: *Zaborrezko bulegoak*, Zaldibarko zaborteziaren hondamendiaren ingurukoa. Taldeak hainbat kontzertu ditu lotuta.

Testua **DORLETA VIDAL**

Noiz sortu zen Makis 37?

2020an jaio zen, pandemia pasatu berritan. Miguel eta Gaizka Ermura etorri ginen Vertigo Rock jaialdia ikustera, plazan eserita egon behar zen garai hartan, eta kasualitatez Julen Gutierrez ezagutu genuen, taldea osatzeko baxu eta bateria bila zebilena. Hurrengo egunerako geratu ginen eta ikusi genuen helburu edo nahi berdintsuak genituela: estiloa, abesti propioak sortzeko nahia... Aurrera egitea erabaki genuen, eta handik hiru astera lehen kontzertua eskaini genuen Eibarko gaztetxean, San Juanetan, bospasei kantu propioekin.

Zer moduz joan zen kontzertu hura?

Gaur egun ikusiko bagenu, desastre hutsa izan zela esango genuke, penagarria, baina momentu hartan sekulakoa iruditu zitzaigun: itzela izan zen pandemiatik irten berri eta 40 bat lagun aurrean jotzea!

Egun batetik bestera ezagutu, eta denbora asko partekatzen hasi zineten elkarrekin...

Bai, gure arteko harremana osatzen joan zen, gaur egunera arte: ez dugu elkar gorrotatzen, ez dugu elkar maite, baina ondo konpontzen gara. Harreman bikaina daukagu, egia esan, egunero gaude kontaktuan eta denetik hitz egiten dugu...

Zein izan da taldearen ibilbidea lehen kontzertu har-

tatik aurrera?

Hasi eta urtebetera Alex Gonzalez batu zen taldera, beste gitarra bat behar genuelako. Garai hartan hasi ginen pentsatzen ere diskoa grabatu behar genuela, eta 2023ko martxoan gure estudioko lehen lana kaleratu genuen: *Malkoen distira*. Hari horretatik, datorren astean, martxoaren 2an hain zuzen ere, gure bigarren diskoa kaleratuko dugu, *Eromenarekin ihesean*, Alma Ruizen diseinuarekin. Diskoa 10 eurotan salduko da, gure kontzertuetan eta Elgoibarko Derry tabernan, eta Spotifyn eta plataforma nagusietan egongo entzungai. Horrez gain, urte hauetan 70-80 kontzertu inguru eman ditugu: Euskal Herrian, Vallecasen, Segovian, Palentzian...

Nola joan da diskoa grabatzeko prozesua?

Estudioan sartzen zarenerako abestiak oso landuta izan behar dituzu, baina bertan produktore bat egoten da, eta berak aholkuak ematen dizkizu lortu nahi duzun soinua lortzeko. Noisestudion egin dugu graba-

"Diskoan kristoren soinua lortu dugu, eta uste dugu sekulako lana egin dugula"



Makis 37 taldea, ezkerretik hasita Alex Gonzalez, Gaizka Uranga, Miguel Beraza eta Julen Gutierrez. Arg.: Ane Galindo (@gago.bisuala)

zioa, Zarautzen, eta hilabetetxo batzuk eman ditugu horretan.

Garestia da diskoa grabatzea?

Bai. Baina diskoa ez da gastu bakarra, gure instrumentuek eta anplifikadoreek dirutza baliokidute! Zorionez, diru apur bat jaso dugu kontzertuetan eta horrekin diskoaren %95a ordaindu dugu. Horregatik da garrantzitsua guretzako kontzertuak egitea, besteak beste.

Pozik diskoaren emaitzarekin?

Bai, kristoren soinua lortu dugu, eta uste dugu sekulako diskoa egin dugula. Oso harro gaude eta espero dugu harrera ona izatea.

Nolakoak dira zuen kontzertuak?

Dena ematen dugu, eta uste dugu asko transmititzen dugula.

Zuzenekoetan gure nortasuna erakusten dugu, gure arima, eta orain arte bertsio batzuk jo izan ditugun arren, hemendik aurrera gure kantuekin bakarrik arituko gara. Hamasei abesti propio ditugu, eta eszenatoki gainean defendatu behar ditugu: bai abestien letra, mezuaren potentzia, instrumentuak zuzenean jotzeko trebetasuna, modu konpaktuan lan egiteko gaitasuna...

Zein musika estilo jotzen duzue?

Punk rock, hard rock... estilo horretan mugitzen gara. Taldekideok estilo ezberdinak ditugu, influentzia ezberdinak, eta horrek bere isla du gure musikan ere.

Zein hizkuntzatan abesten duzue?

Euskaraz eta gaztelaniaz.

Hizkuntza bien arteko orekari begirutzen diozue?

Aurreko diskoan ez zen orekarik egon (bost abesti gaztelaniaz izan ziren eta bi euskaraz), baina egunotan kaleratuko dugun diskoan arreta jarri dugu kon-



Ezkerretik hasita: Miguel baxua eta koroak, Gutti gitarra eta ahotsa, Gaizka bateria eta Alex gitarra.

tu horretan eta sei kanta izango dira gaztelaniaz eta lau euskaraz. Abesti gehiago genituen prest euskaraz, baina azkenean kanpoan geratu dira, gehiago landu behar ditugulako.

Nork sortzen ditu abestiak?

Letra Gutik sortzen du (Julen Gutierrezek) baita hasierako melodia ere. Gero, lokalera ekartzen du proposamena eta buelta asko ematen dizkiogu: bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu eta emaitzak ez du izaten oinarriarekin zerikusi handirik!

Ikus-entzunezkoei ere garrantzia ematen diezue, eta bideo oso landuak partekatzen dituzue...

"Taldekideok estilo ezberdinak ditugu, influentzia ezberdinak, eta hori gure musikan islatzen da"



OLATZ BOUZO GERENABARRENA
2025eko otsailaren 24a



Euskal Birusa Elkarte Kulturala

Saiatzen gara, gaur egun irudia oso garrantzitsua baita, eta eroso sentitzen gara lan horretan. Aurreko diskoko bi bideoklipak Julene Rosado aretxabaletarrarekin grabatu genituen eta otsailaren hasieran estreinatu dugun *Zaborrezko bulegoak* kantuarien bideoa Julen Corral eibartarrarekin egin dugu. Corralekin grabatu genuen ere gure lehen bideoklipa, 2022ko otsailean, oraindik Alex taldean ez zegoenean. Zaldibarko zaborteziaren inguruko kanta zen, oso punkia, soinu eskasarekin, gu ere hasiberri... Arantzatxo bat geneukan kantu horrekin, eta aurten buelta bat eman diogu eta *Zaborrezko bulegoak* sortu.

Izan ere, oihartzuna izan du bigarren diskoaren barruan dagoen *Zaborrezko bulegoak* kantu horrek...

Bai, otsailaren 5ean estreinatu genuen, hondamendiaren bosgarren urteurrenaren atarian. Aurretik kaleratu genuen abestia euskaratu genuen, birmoldatu... eta bertsio honek ez dauka zerikusirik originalarekin. Zaldibar Argitu plataformak eta hainbat komunikabidek bideoa zabaldu dute, eta hondamendiaren urteurreneko ekitaldian parte hartu genuen, akustikoan.

"Zaldibar Argitu plataformak *Zaborrezko bulegoak* kantuarien bideoa zabaldu du"

"Taldearen izenak gerra zibilarekin dauka lotura, eta askotan gai politikoei heltzen diegu"

Zergatik heldu diozue gai honi?

Guretzat gai garrantzitsua delako, gure inguruan gertatutako injustizia handia. Bi pertsona hil ziren bertan, eta erantzule guztiak eskuak garbitu dituzte. Musikaren bitartez gure aletxoak jarri nahi izan dugu gertakizun hau kanpora zabaltzeko eta gertukoek ez ahazteko.

Zein beste gai jorratzen dituzue abestietan?

Taldearen izenak gerra zibilarekin dauka lotura, eta askotan gai politikoei heltzen diegu. Azkenean ikusten dugu garai hartako injustiziak gaur egun ere errepikatzen direla: Durangoko bonbardaketa eta Palestina, esaterako. Baina tira, beste gai arinagoak ere lantzen ditugu, pertsonalagoak.

Makis 37 izena nahiko adierazgarria da...

Ez genion izenari buelta asko eman: Fugitivos izena jarri nahi genion hasieran, baina bazegoen talde bat izen horrekin; gero Makis izan behar ginen, baina Errusian musikari bat dago izen horrekin, tekno arraroa egiten duena; eta azkenean Makis 37 aukeratu genuen, Iparraldeko frontea jausi zen urtea izenari gehituta.

Baduzue kontzerturik lotuta datozen hilabeteetarako?

Martxoaren 15ean Iruñean joko dugu, eta gero Ermuan, Zaldibarren, Elgoibarren... Iraila bitartean zazpi bat kontzertu ditugu jada, baina gehiago lotzekotan gaude.

Nola ikusten duzue zuen burua hemendik urte batzuetara?

Espero dugu liga handietan jokatzeko egotea! Badakigu ia ezinezkoa dela musikatik bizitzea, are gutxiago hemen, zeren eta beste herrialde batzuetan diru gehiago dago eta musika hobeto ordaintzen da, kontzertuak esaterako. Baina tira, Euskal Herrian ezin gara kexatu!




Zatoz ate irekietara!
MARTXOAK 26



AUKERARIK ONENA, ETORKIZUNA DUENA

Krossmorea, aurten laugarrenez Martxuaren zortzixe arineketan aldarrikatzen

Martxuaren 8ko egune ospatzeko arineketalditxo bat antolatzen urte batzuk daroiez emakume talde batek Mallabixen. AEK-k Korrika urte bitxik behin antolatzen daberen moduen ospatzen da Krossmorea, baina Korrika egiten ez dan urtietan.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Bakotxa bere aldetik “orain dala urte batzuk hasi ginen korrika egiten, kirola praktikatu eta geuretzako denporie hartzeko”, eta orain bost bat emakumek osatuteko taldetxo bat lantzien-lantzien korrika eitzera jueten die. Halan,

eta Krossmorea lako korrikaldixek Euskal Herriaren ziherrainbat herritarren antolatzen diela eta, “geuk be Mallabixen bardine egittie pentsatu gendun”, adierazi deusku antolaketa taldeko Esti Arrizabalagak. Era honetako lasterketen artien ezagunena Donostiko Li-



2023ko Krossmorea. Arg.: Valentin Mugarza.

latoia da, aurten otsailaren 23en ospatu dana. Bertara jueteko autobuse antolatu dau Mallabiko Udalak eta mallebittar dezentek egin dau 2025ekuai dagokioxan 5 kilometrotako ibilbidie Donostin.

Krossmorean parte hartzera etortzeko herriko kirol, kultur eta era desberdinetako elkarte danei eitten jako deixe eta erantzunaren arabera banatzen da ibilbidien ziherrainbat lekukue erueteko ardurie. Martxuaren zortziko ekitaldi bat izetara, lekuko hau emakumezko batek edo emakumezko eta gizonezko batek eruetie erabaki zan hasieratik.

2025eko Krossmorea otsailaren 28en ospatuko da aurten. Arratsaldeko bostetan emoten jako hasierie eskolatik. Guraso elkartiek lagundute, udaletzeko furgonetan megafonixie ipinitte eta esatari batek animaute egiten da ibilbide

"Martxuaren 8ko ekitaldi bat izetera, lekuko hau emakumezko batek edo emakumezko eta gizonezko batek eruetie erabaki zan hasieratik"

osue. Eskolatik plazara, plazatik Mikel Zarate 14re, gero Microdecoraino, Mallabixan eta Ermuan arteko mugararte, eta han buelta. Behetik gora berriro Mikel Zarate kaletik, petritetik plazara eta Mallebarrengo tabernie zan etxaurretik parkera. Parkien batzen dien parte hartzaile danen artien oroigarri bat banatzen da, "urtero logo barrixe egitteko lehiaketatxo bat antolatzen da eskolan eta Krossmorearen egunien logo hori daroien oroigarri bat jasoten dau parte hartu daben danak". Parkien egunari amaierie emoteko merixen-datxo bat egitten da bertaraten dan jentiaerentzat.

Asteburu pasa Mallorcako mendixetan korrika

Korrika zelan egin, ikasi be egin leike, eta horretan pasatu dabe otsailien asteburu bat gure herrixen Krossmorearen antolaketako ardurie daukien lau emakumek. Iratxe Pradera, Olga de Miguel, Idurre Galarraga eta Esti Arrizabalaga Mallorcan izen dira Asaltamontes Female campusien. Adin eta kondizio desberdineko emakumiek batzen dittun elkartie da eta mendi marxtatan emakumien parte hartzie bultzatzie da ekimen honen helburu nagusixenetako bat, Estik kontaktu



Ezkerretik hasita, Olga de Miguel, Idurre Galarraga, Esti Arrizabalaga eta Iratxe Pradera Asaltamontes Female campusean.

deuskunez. Aroa Sio atleta profesional galiziarraren proiektue da eta mendixen zelan ariñeketan egin, nutrizioa eta entrenamentu saiuek lantzen die.

Kirola sustazea, naturaz gozatzea eta emakumeen

**Trastelekuak
partikularrentzat**



**Biltegiak
enpresentzat**

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com



688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666

EGOITZ FORMOSO col 1675



Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

"...mendixen zelan ariñeketan egin, nutrizioa eta entrenamentu saieuk lantzen die"

"Campusean korrika bai, eta barre pilo bat be egin dogu, oso ondo pasatu dogu"

arteko laguntasuna lantzeko sortutako ekimen bat dala kontatu deusku Estik. Edozein emakumek hartu leike parte, "parte hartzaile bakotxaren egoera fisikora egokittuteko ibilbidiek egitten dira, korrika edo oinez, bakotxa bere erritmora". Otsaileko asteburue Mallorcan ospatu dabe eta "azaruen beste edizio bat egingo da, Madeiran, ia juterik daukegun, jeje".



Asaltamontes Female campusean beste korrikalari batzuekin.



Mallabiko korrikalariak Mallorcan.

Campus honetan karreretakoko prestaketa entrenamenduek egitten dira eta fisioterapeuta baten laguntza jasoten dabe ahalik eta era egokixenien juen daixezan mendi lasterketak. Emakume bakotxaren "konfort egoeratik urteteko eta erronka barrixek bizitzeko eta gainditzeko aukera paregabie da, profesionalen eskutik gainera", komentatu deusku Esti Arrizabalagak.

Nutrizionista batek be emoten dittu elikadura aholkuak, "eta oso giro ona" egoten da parte hartzen daben emakume danen artien. Korrika bai, "eta barre pilo bat be egin dogu, oso ondo pasatu dogu".

Gutziz gomendagarrix dala dino Estik, kirola, natura eta lagun giro ona uztartzen dielako bertan, "Krossmorean lez, hemendik animatzen dot jentie hurrengo Krossmorean parte hartzera, kirolaz gozatu eta geure limitiek topatu eta gainditzeko".

SAGARDUI
poltsak

Zubiurre 20 - ERMUA - 943 170305

Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a tí

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI C.A. nº 1204

PADI Programa Ayuda Dental Infantil
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo zeharbidea 5 - ERMUA

Bitsi-denda Tailer prezipia Edozein denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Asteunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

Zazpi Pago mendi-lasterketa Durangaldeko Koparen baitan egongo da

Maiatzaren 17an burutuko da Zazpi Pago Mendi Lasterketa Mallabian, eta bertan izena ematen duten korrikalariek Durangaldeko Koparen lehen edizioan puntuatzeko aukera izango dute. Guztira zortzi lasterketa izango ditu Kopak, Durangaldeko mendi nagusienak zeharkatuko dituztenak.

Zazpi Pago, Amaraune, Zaldu trail, Asto trail, Mañaritik Atxetara, Sorginen lasterketa, Aramotz eta Aldapegora mendi lasterketek osatuko dute Durangaldeko Koparen lehen edizioa (maiatzean izango da lehen lasterketa eta urrian azkena). Kopa irabazteko aukera izan nahi dutenek



aipatutako lasterketa horietako lautan eman beharko dute izena gutxienez eta lehen 15 sailkatuen artean bukatuz gero, puntu kopuru jakin bat jasoko dute, postuaren arabera.

Emakumezkoen eta gizonzkoen sailkapenak egingo dira eta kategoria bakoitzean 3.000 euro banatuko dira lehen bost sail-

katuen artean (500 euro eta garaikurra, 400 euro, 300 euro, 200 euro eta 100 euro). Sari banaketa Aldapegora mendi lasterketa bukatutakoan egingo da, hura baita zirkuituko azken proba.

Antolatzaileen esanetan, Durangaldeko mendi nagusietatik ibiltze-

ko aukera izango dute parte-hartzaileek, hala nola, Urkiolako Parke Naturaletik eta baita Oiz mendiko txokoetatik ere: "Era guztietako lasterketetan parte hartzeko aukera paregabea dago: harriz beteriko mendi lasterketak, baso-zelai erakoak eta luzera eta gogortasun ezberdinekin".

Honekin batera, Zazpi Pago mendi-lasterketaren antolatzaileek gogorarazi nahi dute Mallabiko lasterketarako izen-emate epea zabalik dagoela oraindik, www.kronoak.com/eu atarian.





Urko puntan, eguna zabaltzen.
Argazkilaria: Jabi Vidal.

Oillarran jokua, aratustietako harribitxia

Eguen Zuri arratsaldian ospatzen dan Oillarran jokua, Ermuan “bizi guztian” ein da zaharrrauen esanetan. Frontoian egoten da kajo baten barruan eta begiak tapauta doian jokalaria batek “Ezkerrera” “Eskumara”, “Zuzen” oihu artian plazia puntarik punta korritzen dau, makila batekin kajoia joko daben esperantzaz. Aspaldiko joko honen nundik norakuak ezagutzeko testigantza desbardiñak batu ditxugu.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Argazkiak **IGNACIO PÉREZ** eta **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Julian Agirregomezkorta, Arrako basarriko semia, 1908an jaixo zan eta bere seme Pedro Mariren gomutaz ume denboran oillar harrapaketan ibillitxakua zala entzunda zotsan. Bera bakarra ez dan arren betidanik ezagutzen dabena, Juliani esker dakigu oillarran jokuak ehun urtetik gora dakazela eta bardin jokatu dala honek urtiotan.

Esther Azkarate zortzi urte zitxuan Eibartik Ermura bizi izatera etorri zanian, gerria amaitxu zan urte berrian, eta umia zala gogoratzen dau oillar jokua plazan.

“Jai haundixa izaten zan. Oillar batzuk edarrak ekartzzen zitxuezen, mejorau eraginda, pentsu gehixao-edo emonda, plazan danen aurrian erakusteko. Segun eta ze baserritxik ekartzzen eben, diferentzia egoten zan. Kajan eukitzen eben eta danak haraxe, oillarra ikustera. Egositxa egoten zan, han kajapian... Harek sasoiak jua zian, baiña beste batzuk datoz, eta umiak hor jarraitzen dabe plazan, oillar billa”. **Alejandro Arrizabalaga** maisua, oillar jokuan umetan parte hartutakua da eta kajoira hurreratutako millaka horien tartekua be, baiña ez eban sekula oillarra irabazterik izan.

“Nire aitxak, bizi bazan, ehundik gora urte izango zitxuan eta beti esaten eban umetan jokatzen ebela eta bera be ibilitakoa zala oillar-harrapatzen. Kontatzen eban, garai batian eskolan errifatxo bat ateratzen eben eta

horrekin oillarrak erosten zitxuezen. Ez dakit zeinek antolauko eban, maisuek-edo, baiña eurak juaten ziran etxez-etxe eta baserriz-baserririk errifatxuok saltzen. Gerora maisuok arduratzen hasi giñan oillarrak ekartziaz; azken boladan gure inguruan oillar gitxi euanez, Gipuzkoa aldetik, Meagasetik ekartzzen genduzan, Ermuan maistra eualako bertako bat eta haren bitxartez. Sartu kotxian pare bat oillar eta Ermura!

Harrapatzia gauza haundixa zan: bat, lagunen aurrian albidade hori erakustia eta bi, etxera eruanda haren okeliakin jatordu bat atontzen zalako. Gerora galdu ein da apurtxo bat sen hori.



Oillarran eguna 1997.

Sasoi baten Teresa Murga zan Ermuko eskola bakarra eta hango maisuak kargutzen ziran antolaketiaz: Angel Junkera, Lorenzo Martin, Saturnino Nogales, Amador del Rey... Gero guk, Teodoro Zuazua ikastetxeko maisuok hartu genduan egunan arduria. Mutilen maisuok, bai, ze neska gitxitxua hartzen eben parte. Eta On Teodoro mikrofonuaz eta animatziar arduratzen zan.

Ikusliek, baztarretatik “Ezkerretera”, “Eskumara” eta “Zuzen” oihukatzen eben eta txistulariak makildunakin zoiazen. Onduan juaten zan be udaleko langilen bat zumitezko makiltxo batekin, ikusliak bazartzeko. Harek bai jotzen ebala gogor!

Gogoratzen dot entrenamenduak eitzen genduzala, orientatzen ikasteko. Bezperan neurtu eitzen genduan plazia: honenbeste pausora ezkerreko mugia, horrenbestera eskumakua... Egixa esateko, begixak lotuta, despistatzeko pare bat buelta emon eragin ostian, ez genduan jakitzen nun gengozan be ez. Burrundada horrekin... Gainera txistua eta danborila horretarako dira, “eskumara” edo “ezkerretera” ez deizun ondo entzun. Ikusi dotenagaitzik, oillarran kutxia jotia gatxa da, dirudiena baino zailagua eta bizirik balego, gaur egun oillarra etxera eruatia arazo bat izango zan: jendiak ez daki zelan hil, zelan lumatu... ez da erraza etxe

“Oillarra egositxa egoten zan, han kajapian”

“Oillarran kutxia jotia gatxa da, dirudiena baino zailagua”



Miguel Cámara oillarra emoten mutiko irabazle bati, 1998an.

baten oillar bat manejatzia”.

Miguel Cámara maisuak oillarrak jiratzeko kargua eukitzen eban beste batzukin batera.

“Jai hau luzaruan udala eta Teodoro Zuazua ikastetxian artian antolau genduan eta beste modu batera eixia eskatu gendunian, urtian-urtian eskola bat arduratzia pentsau zan.

Oillarrak Mallabiko Artamendi baserrikuari enkarगतzen notsazan eta ez bazitxuan inguruko baserriren batetik jiratzzen zitxuan berak.

Goguan dakat Teodoro Zuazuako patixuan ensaiuak eitzen genduzala, begixak tapauta eta linea bati jarraituz. Egunian bertan gero umiak oso ondo pasatzen eben, jai politxa zan eurentzat, umez betetzen genduan plazia. Gogoratzen dot begixetakua ipintzeran dardaraz egoten ziralako asko, urduri. Harrapatziak gero prestigio handixa emoten zotsien, baiña batzuetan ez zekixen zer ein berakin: oillar bat bizirik etxera, etara kontuak!

Egixa esateko kajoira aillegatzia zaila da: bizpahiru buelta emoten jakue neska-mutikoei eta nun dagozan ez dabe jakitzen, desorientauta, musikiakin, orruekin eta plazan dauan zalapartiakin zorabiau... Banaka

KRABI
leapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

batek lortzen dau plazia zeharkatu eta oillarreraino ailegatzea”.

Ricardo Totorikari umetan ikusle egotia gustatzen jakon, begiak tapatze horrek erreparo pixkat emoten zotsalako. Gerora, maisu eginda sarri tokau jako antolatzaile ibiltzia.

“Gogoratzen naz umia nintzaneko sasoiari herriko aguazilak hurbiltzen zanari makillakada edarrak emoten zotsela; gu maisuok gero, makillia zaratia eitzeke erabiltzen genduan bakarrik. Goguan dakat be ume-



Gaur eguneko oillarra bere kutxan.

“Algara itzela egoten zan gelakoren batek harrapatzen ebanian”


tan oillarrana amaitzen zanian, urez betetako ontzi baten laranja botatzen zitxuezela eta makil-punta batekin harek zizatzerara jokatzen zala.

Maisu denporan ilusiñu haundixakin ibiltzen giñan psikomotrizitate orduetan ensaiatzen ezkerria, eskuma eta zuzen juate hori. Umiak oso pozik ibiltzen ziran eta algara itzela egoten zan gelakoren batek harrapatzen ebanian.

Nere akorduz Jorge Totorika, Miguel Cámara eta Justo Azagirre maisuak oillarra topatzeko arduria eken eta nahiko lan konplikatu zana: hor ibiltzen ziran Garaiko eta Mallabiko baserrietan, eta kostau, eitxen jakuen. Nire umetasunian, Ermuan ondiñok basarriak euazentian, edozeinek ekan oillarra; gero zaildu ein zan gauzia.

Gogoratzen naz be egunian bertan irakasliok bazkari bat eitxen genduala; haren ostian alkartu On Teodorokin eta danok plazara! Ermuko eskoletan adin ba-koitzeko ehunka ume euazen sasoiari, irakasliak be mordua giñan eta amaitzerakuan oillar harrapaketa ez zan faltatzen gure txikiteua eta gure giro ona”.

2005. urtian, animalien babeserako legia dala-eta, ordura arte bizirik euan oillarra eskaiolazko koloretsu batengaitxik ordezkau zan, Angel Gil zeramikagilliak egindakua. Harrezkero, kukurururik bako oillarran metakrilatozko kutxa joten dabenari, benetako baten ordeze, erosketa-bonua eta garaikurra emoten jakoz.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



Quetzal
[arropa, bitxiak, opañak...]

www.quetzalmoda.com
Zubiaturre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAIA - OLAGARRIAIA



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com

“Ezinezkoa da ezagutzen ez duzun zerbaiten inguruan idaztea”

Miren Cruz · Idazlea



Irakaslea ofizioz, idazketa dauka zaletasun Miren Cruzek (Ermua, 1963). Euskaraz eta gaztelaniaz aritzen da, bai olerkigintzan bai kontakizun laburren esparruan, eta horietan guztietan sari ezberdinak irabazi ditu. Azkena Gabonetan jaso zuen, Gasteizen, 30 urte baitaramatza bertan bizitzen, nahiz eta "hil arte" ermuarra izango dela aitortu duen. Euskadi Irratiko kolaboratzailea izandakoa, idazketa tailerrak ematen ditu azken 20 urteotan.

Testua **DORLETA VIDAL**

Duela gutxi Literatur saria jaso duzu Gasteizen, Gabonekin lotutako ipuina idazteagatik. Ez da zure lehen saria, ezta?

Ez, hamazazpigarrena da. Eskola garaian irabazi nintuen lehenengoak, betidanik idatzi dudalako: gaztelaniaz hasieran eta euskaraz ere gero. Izan ere nahiko berandu alfabetatu nintzen euskaraz, 29 urterekin, baina bi hizkuntzatan ditut sariak, bai olerkigintzan bai kontaketa laburretan bai ipuinetan.

Modalitate anitzetan aritzen zara, beraz... Badakizu zenbat istorio sortu dituzun?

Ehun bat lan izango ditut idatzita, gehienak ipuinak eta olerkiak.

Idazten duzun guztia gordetzen duzu?

Ez, den-dena ez. Zerbait burura datorkidanean edozein lekutan idazten dut, Iberdrolako fakturaren gutun-azalean esaterako, edonon!

Eskuz idaztea duzu gustuko?

Bai, amama bat naiz horretarako! Koadernoetan idazten dut, eta marra bakarreko koadernoak ditut bereziki gustuko. Boligrafoari dagokionez, presio handia egin behar ez direnak aukeratzen ditut, *roller ball* estilokoak edo errotuladoreak, more ilunak. Nahiko fetitxista naiz idazteko materialarekin! Ondoa izaten ditut baita ere Bernardo Atxagaren aholkuak ipuin bat



bost minututan idazteko.

Zeintzuk dira zure inspirazio iturriak?

Edozein izan daiteke: Eroskiko ilaran nagoela entzuten dudana zerbait, txikitan herrian gertatzen ziren gauzak, amak kontatutakoak... Ezinezkoa da ezagutzen ez duzun zerbaiten inguruan idaztea!

Gustatzen zaizu idatzitakoa besteekin partekatzea?

Euskadi Irratian bi urtez egon nintzen kolaboratzen hilean behin, eta han pare bat gauza erakutsi nituen,

baina orokorrean, nahiko modu pribatuan eramaten ditut idazketa kontuak: pertsona batentzako idazten dudanean, pertsona horri bakarrik erakusten diot. Honen harira, iaz, Gabonetan, nire ahizpari eta nebari gu hiruroi buruzko idatzia irakurri nien, amaren oroimenean egin nuena, eta hori ez dut inon argitaratuko ezta erakutsi ere.

Idatzi duzun guztiaren artean, badago lanen bat bereziki gustatzen zaizuna?

Eduardo Galeano eta Gabriel García Márquez hil zirenean olerki bat idatzi nien, *Nana Lupa* izenekoa, eta mordoia gustatzen zait. Ez dut inon aurkeztu, lagun bati oparitzeko idatzi nuelako, baina berezia da nire idazle gustukoenetako batzuen omenez egin nuelako.

Zeintzuk idazle miresten dituzu?

Eduardo Galeano, Mario Benedetti eta José Luis Sampedro idazleei "maestros" esaten diet, horrela, gaztelaniaz. García Márquezekin zerbait berezia daukat, asko maite dudalako, baina ez dut "maestroen" taldean sartzen... *Ehun urteko bakardadea* ezin hobea da! Sei ale ditut, edizio berezi guztiak erosten ditudalako, eta euskaraz ere irakurrita daukat: liburu hori miresten dut! Askotasegin dut errealismo magikoa eta horretan García Márquezek ez dauka parekorik!

Askotasegin duzun irakurtzea?

Bai, zaletasuna baino bizioa izan dut, baina orain debekatuta daukat egunean bi ordu baino gehiago irakurtzea, osasun arazoengatik.

Liburu asko dituzu etxean?

Bai, iaz 400 oparitu nituen, ez zitzaizkidalako etxean gehiago sartzen. Besteak beste, "maestro"en lanekin geratu nintzen, hala nola ezinbestekotzat ditudan hainbat libururekin. Literatura erotikoa 50 bat ale ditut.

Idazteaz gain, idazketa tailerrak ere ematen dituzu, ezta?

"Iaz 400 liburu oparitu nituen ez zitzaizkidalako etxean sartzen. Ezinbestekoeekin geratu nintzen"



"Agur esaten duzun bakoitzean txori bat hiltzen da...
Diosala dinozun bakoitzean izar bat erortzen da...
Aio erraten dozun bakoitzean lore bat usteltzen da...
Agur xuxurlatzen duzun bakoitzean zu galtzeari beldur diot".

Miren Cruz

zu, ezta?

Bai, 20 bat urte daramatzat zeregin horretan: ikasleei idazten laguntzen diet, genero guztiak lantzen ditugu, ipuinak aztertu...

Zer daukazu esku artean gaur egun?

Azkenaldian literatura japoniarrari heldu diot, eta *haikuak* eta *tankak* idazten ditut. Olerki laburrak dira, euskaraz edo gaztelaniaz idatzi daitezke, eta garrantzitsuena da gaia bera alde batetik, eta silabak kontatzea, beste aldetik. Hauek edozein lekutan idazten ditut, eta gehienak zakarrontzira doaz. Horrelakoa naiz, pixka bat eroa! Bestalde, ipuin laburren bilduma bat prestatzen ari naiz, laster argitaratuko dudana.


OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBALEKU 5 - 945 170565
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa
GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

“Banekien txapelketa honetan gauzak ondo egin nitzakeela”

Julene Bouzo Agirregomezkorta · Gorako jauzilaria



Otsailaren 9an, Gorako Jauzien Espainiako Txapelketa irabazi zuen Sabadellen Julene Bouzok (Ermua, 2003), 23 urtez azpiko kategorian. Bertan, 1,76 metroko langa gainditu zuen ermuarrak lehenengo saiakeran, aurtengo bere marka pertsonala hiru zentimetrotan hobetuz. Otsailaren 23an burutu zen Espainiako Txapelketa Absolutuan, aldiz, zazpigarren geratu zen, eta Europako Txapelketan parte hartzea du aurtengo erronka.

Testua **DORLETA VIDAL**

Txapelketa bikaina egin zenuen Sabadellen, altuera guztiak lehenengo saiakeran gaindituta. Zer nolako sentazioak izan zenituen?

1,74 eta 1,76 metroak lehen saiakeran gainditu nitue-nean, harrituta geratu nintzen! 1,76rekin Espainiako txapelduna nintzen, nire marka 3 zentimetrotan hobetuta, zer gehiago eskatu nezakeen? Momentu hartan txapelketatik guztiz kanpo nengoan, deskontzentratuta, pozez zorutzen! Orain, aldiz, amorru apur bat daukat, ez nintzelako 1,78rekin gogoz saiatu. Izan ere, aurreko altuerak lehenengo saiakeran gainditzeak adierazten du gehiago saltatzeko gaitasuna duzula... baina tira, pausoz pauso.

Txapelketako lehen jauzia 1,59 metrotan jarri zenuen, gainontzeko lehiakideek 1,55 metrotan jarri zuten arren. Konfiantza handia zeneukan zure buruan?

Bueno, kontua da hobeto moldatzen naizela altuera handietan, txikietan baino, bestela erlaxatzen naiz eta aukera asko ditut listoiat jotzeko. Dena den, banekien gauzak ondo egin ahal nituela, aurreko astean marka pertsonala zentimetro batean hobetu nuelako, baina ez irabazteko moduan!

Bazegoen faboritorik?

Bai, bigarrena geratu zena. Bere marka pertsonala 1,75 zen.



Txapelketa pista estalian izan zen, nahiago duzu hura ala aire zabaleko pista?

Aire zabala nahiago dut. Ez dut denbora asko izaten pista estalia prestatzeko... aurten bai, azterketak bukatu

eta ia hilabete egon naizelako kalitatezko entrenamenduak egiten, baina ez da ohikoa. Bestalde, txapelketa itxura handiagoa hartzen diet aire zabalean egiten diren probei: espazio gehiago dago, beste giro bat...

Zeintzuk gauza landu dituzu aipatu dituzun entrenamendu horietan?

Serieak korrika, indarra, esplosibitatea, multisaltoak, karreraren teknika, listoiaren gaineko teknika... Baina asko entrenatu arren, oinarrizko gauza dago txapelketetan ondo aritzeko: burua ondo izatea.

Lolo Garcia entrenatzailea ondoan izan zenuen txapelketan. Horrek mesede egin zizun?

Bai, noski! Ezinbestekoa da! Entrenatzaileak ez dizu erakusten bakarrik saltoak egiten: ondo ezagutzen zaitu eta badaki zehazki zer gauza esan behar dizkizun zuk ondo ulertzeko eta hobetzeko, bai entrenamenduetan bai txapelketetan ere. Nik Lehen Hezkuntzako 3. mailatik entrenatzen dut Lolorekin eta asko hitz egiten dugu. Gainera badakit ahalegin handiak egiten dituela niri horrenbeste denbora eskaintzeko, aita delako, atletismo taldea entrenatzen duelako, bere bitzta duelako... Denbora asko daramagu elkarrekin eta espero dut denbora askoz gehiago egotea nire ondoan.

Zer ezaugarri izan behar ditu gorako jauzilari batek? Estereotipoak apurtzeko daude, baina garrantzitsua da altua eta arina izatea, eta alde horretatik nire fisikoa egokia izan daiteke, 1,81 neurtzen dudalako eta fina naizelako. Lagungarria izan daiteke baita ere hanka luzeak izatea eta lasterketari ona izatea.

Yaroslava Mahuchikh ukrainarrak du munduko errekorra gorako jauzian: 2,10 metro. Zer diozu bere markaz?

Urrun, gaur-gaurkoz oso urrun ikusten dut! Gure aurtengo erronka da 1,80ra heltzea, uztaillean Europako Txapelketan parte hartu ahal izateko.

Zure entrenamenduak umeen entrenamenduekin

"Txapelketa irabazteko ezinbestekoa izan zen nire entrenatzailea ondoan izatea"



Julene Bouzo Espainiako Txapelketan. Héctor Montero

tartekatu beharko dituzu, aurtan Lehen Hezkuntzako umeak entrenatzen hasi zarelako. Zein aholku ematen diezu?

Gozatu behar dutela esaten diet, eta denetik probatu: krosak, saltoak... Horrek guztiak diziplina erakusten du. Nik ere, atzera bueltatuko banintz, ez nuke bakarrik gorako jauzia egingo, konbinatua egingo nuke. Kontua da eskubaloia ere egin izan dudala betidanik, eta ezin nuen entrenamendu gehiago egin.

Gaur egun ere eskubaloian jokatzan jarraitzen duzu?

Bai, atletismoaren eta eskubaloian artean aukeratu ezinik nabil...

Zein da atletismoaren egoera Euskal Herrian?

Esango nuke egoera ez dela txarra, baina ez zait bidezkoa iruditzen maila profesionalean dabilzan atleten ez kotizatzea. Beste kirol batzuetako maila gorenetan, adibidez eskubaloian, kotizatzen dute.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako eta Lehen Hezkuntzako Gradu bikoitza egiten ari naiz. Kirolari dagokionez, espero dut etorkizunean kirol batean bakarrik aritzea eta, atletismoan bada, nahi nuke hobetzen jarraitu, gozatu, eta Europa mailako txapelketa batean parte hartu, bada garaia-eta!

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pernod Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

T.943176075

aral@aral97.com | Pal.Goitondo-Goiikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Ermuko Euskaltzaleen Sareak Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztuko du Sagardo Egunean

Maiatzaren 15etik 25era bitartean burutuko dira aurtengo Euskaraldia eta Ermuan Bagara egitasmoak, eta Ermuko Euskaltzaleen Sarea hasita dago jada prestaketa lanetan. Ekintza hauen helburua da hamaika egun horietan euskara nagusi izatea herritarren ahoan, eta baita herriko kaleetan ere, talde eta elkarte ezberdinek antolatuko dituzten kultur eta kirol ekintzei esker.

Horrekin lotuta, lehen ekitaldi publikoa egingo da martxoaren 15ean, Sagardo Egunean. Izan ere, "hamaikakoa" aurkeztuko da, hau da, Euskaraldiak iraungo duen egun bakoitzeko herriko ordezkari bat aukeratu da, eta guztien artean osatzen duten taldetxo arduratuko da baita ere txotx egiteaz. Gainera, Euskaraldian izena emateko aukera egongo da egun horretan.

Bestalde, Euskaltzaleen Sareko koordinatzailea den Oier Beitiak jakinarazi duenez, Euskaraldiaren "Gune ibiltaria" martxoaren 21ean izango da Ermuan. Fur-

goneta hau Euskal Herriko herri ezberdinetan egongo da Euskaraldia hasi arte, eta bertara gerturatzen direnek egitasmo horrekin lotutako informazioa jaso ahal izango dute, hala nola izena eman eta edizio honetako produktu ezberdinak probatu eta erosi.

Euskaltzaleen Sarea Ermuan Bagarari lotutako egitaraua ere zehazten hasi da, eta laster emango du horren berri sare sozialen bitartez eta drogeteniturrri.eus atarian.



Laburbira eta Labur-labur ekimenak izango dira Ermuan datozen hilabeteotan

Laburbira, euskarazko film laburren XXII. zirkuitua, Ermua Antzokian izango da martxoaren 20an, osteguna, 20:30ean, Euskal Birusa Elkarte Kulturalak antolatuta. Emanaldia bukatutakoan, gainera, zine zuzendari baten solasaldi laburraz gozatzeko aukera izango dute bertaratu-takoek, herriko kazetari batek dinamizatuta.

Antolatzaileek nabarmendu dute aurtengo filmen kalitatea, eta aurreratu dute lan hauek ikusi ahal izango direla, besteak beste: Goya sarietarako hautatutako filmak (Ekain Irigorioren *Europa* eta Eneko Sagardoyren *Betiko Gaua*); Alaia Martin bertsolariak Kar-

mele Mitxelenarekin eta Iraitz Mateorekin batera zuzendutako *Pentsatzen dut*; Itziar Ituño protagonista duen *Prosopagnosia*; eta *Uttlandsk*, Huhezinema jaialdiko lan irabazlea.

Zine emanaldi horrekin lotuta, Labur-labur film motzen lehiaketa jarriko dute martxan Ermuko Gazte Asanbladak eta Euskal Birusak aurtengo ere, herriko gazteei zuzenduta. Aurtengo gaia "Sare sozialak eta estereotipoak" izango da, eta maiatzaren 5a izango da lanak entregatzeko azken eguna.

Antolatzaileek adierazi dutenez, laster zabalduko dute ekimen horren inguruko informazio gehiago sare sozialetan eta drogeteniturrri.eus webgunean.



Kimika bizirik



2006az geroztik, Kimika bizirik proiektua egiten da. Egitasmo hau urtarrilaren 16an egin zen berriro eta zozketa baten bidez, Ermua BHIko ikasleei egokitu zitzairen esperientzia horretan parte hartzea. Bertan institutuko laborategian egin ezin diren hainbat esperimentu egin genituen.

4. mailako 16 ikasle Leioako Unibertsitate-ra joan ginen Fisika eta Kimikako bi irakaslerekin. Unibertsitateko hiru irakaslek hiru esperimentu ezberdin erakutsi eta praktikan jarri zituzten. Lehenengo esperimentua, 5 zentimoko txanpon baten kolorea bere koloretik urre kolorera aldatzea izan zen. Gero, hainbat substantziren pHa neurtzea izan zen; honetarako, laborategiko hainbat tresna erabili genituen. Azkenik, erakustaldi bat egin ziguten -197°C temperatura zuen nitrogenoarekin. Amaitzeko, astia izan genuenez, "slime" bat egin genuen. Etxera joan aurretik, ikasleok denbora izan genuen EHUko campusa ikusteko. Esperientzia zoragarria izan zen eta urte askotan ospatzea espero dugu, beste ikasle batzuek esperientziaz gozatzeko aukera izan dezaten.
Egileak: DBH4ko ikasleak
Argazkia: ZTF-FCT (EHU) Zientzia eta Teknologia fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea), Instagram.

Durangoko historia ezagutuz

Beste urte batez, Ermua BHIko 2. mailako ikasleak Durangora joan ziren antzinako herria nolakoa zen ezagutzera. Historia eta Arte museotik hasita, ikasleak XI-XIII. mendean zegoen Durango zeharkatu zuten eta Ezkurdi plazan amaitu. Hainbat eraikuntza ikusi eta bisitatu zituzten, besteak beste, Santa Maria eliza eta Kurutzia gako gurutzia eta argazkiak ere atera zituzten Historia ikasgaiaren erabiltzeko. Historia ikasteko beste modu interesgarri bat izan zen.
Egileak: DBH2ko ikasleak

“Ez da arazo erlijioso, lurraldekoa baizik”

Otsailaren 19an gurekin egon zen Fouad Baker gazte palestinarra, “Plataforma de apoyo a Palestina”-ko taldeak gonbidatuta. Ekimen hau, Batxiko 2. mailako ikasleei zuzenduta zegoen eta helburu nagusia Palestinaren eta Israelen arteko gerraren eragina, garapena eta zergatia azaltzea izan zen, besteak beste. Fouadek argi utzi zuen gerra ez zela arazo erlijioso batengatik hasi, lurraldeko arazoengatik baizik. Horren haririk, kontuan hartu behar da gatazka hau 1948. urtean hasi zela eta geroztik, egundoko errepresioa, okupazioa eta

sarraskiak egon direla.

Funtsean, hitzaldi honetan elkarrekin pasatutako denbora oso aberasgarria izan zen, gaur egungo gizartearen eta batez ere, gerraren egoera ulertzeko. Amaieran, galderak egiteko aukera izan genuen, eta bere esperientzia pertsonalari buruz hitz egin zuen. Berbaldi honetatik atera dugun ondorioa izan da, beste batzuen artean, gerra ez dela arazoaren konponbidea, heriotza eta sufrimendua baino ez dakarrelako.
Egileak: 2. mailako Batxilergoko ikasleak



Egunero zabalik
08:30etik aurrera




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entrepesa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Urretaneko taillara



Juan Domingo Urreta Larrañaga armagin elgetarra, 1880an Ermura ezkondu eta Irulitzako euron Torteruaneko etxepian pistolagiñan hasi zan. Bikotian hiru semiak jarraitxu zotsen: Jose Cruz, Luis eta Narciso Urreta Aranburu, hasiera baten alkarrekin. Armagintza gainbeheran zoiala ikusitxa, bizikleten akzesorixuak eitxiari ekin zotsan Jose Cruzek bere semiekin eta gerora loibak emon zotsen jarraipena: pedalak, piñoiak, karretek... Kokapen desbardiñak izan zitxuan Urretan taillarrak: Motxuren baserri ostian lehenengo, Kantabrian gero 1955 urtera arte, Zeharkalera pasatu ziranera arte; etxiak eitxeko taillarraren eraikiña bota zanian, 1973an Mallabirako bidera aldatu ziran, Bolintxúa izeneko parajera eta hantxe egon ziran 1996an itxi zan arte.





ALICIA LORENZO

Denbora galtzea

Semeak animatuta, berari asko gustatu zaiolako, berriro irakurri dut txikitan irakurritako Michael Enderen *Momo* liburua. Berau amaitzerakoan, semeak, "eskerrak gizon gris maltzur horiek benetakoak ez diren!", baina ni hain ziur ez nago.

Liburuan "gizon grisek" denbora lapurtzen diote jendeari, denbora guztian lanean edo "probetxuzko" zeozer egiten egon behar direla sinestarazten diote, eta haien denborarekin geratzen dira. Gaur egun, ez dugu urrutira begiratu beharrik inguruan gizon grisak ikusteko, inguratuta gaude, gero eta gehiago dira... eta ez dira liburua ixtean desagertzen!

"Gaur egun, ez dugu urrutira begiratu beharrik inguruan gizon grisak ikusteko, inguratuta gaude, gero eta gehiago dira..."

Sare sozialak, etengabeko lana, denbora guztian "zerbait egiten" aritzearen presioa... badirudi lanpetuta egoteko bizi garela, ekoizteko, buruan sartu digute gure denbora librean ere gauzak egiten egon behar garela. Konbentzitu gaituzte minutu bakoitza aprobeztatu egin behar dela, ez dugula denborarik galtzeko.

Liburuan bezala, tranpan erori gara eta gure denbora galtzen amaitu dugu, eta ez edozein denbora: benetan bizitzeko denbora, une txikiez gozatzeko denbora, pentsatzeko denbora, besteekin konektatzeko denbora... Bizitza erlojuaren aurkako lasterketa bihurtu da, eta gu, denboraren buruzagiak izan beharrean, haren esklaboak gara!

Eleberriko protagonista bezala planto egin beharko dugu eta gure denbora berreskuratu. Gure denboraren jabeak izan baina, ez hobeto kudeatzeko, baizik eta gozatzeko! Horrela bakarrik, nire semeak egin zuen moduan liburua ixterakoan, agur esan ahalko diegu betirako gizon grisei.

KOLDO ZABALA

Donostian jaioa duela 52 urte: ama nafarra eta aita zaldibartarra. Hiru arreba nagusi ditu eta bat gazteagoa. 2006an etorri zen Mallabira bizitzera eta bi urte daramatza bertako frontoia, kiroldegia eta taberna kudeatzen. Biologiari lizentziaduna, hiru seme ditu eta irakurzale amorratua da.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Oso ume zintzoa nintzen: zintzoegia amaren esanetan! Gogoan daukat lagunekin jolasten egoten nintzela, baina nahiko goiz hasi nintzen bakarrik ibiltzen. Oso bakartia izan naiz, eta ez dut kuadrilla baten beharra izan. Gustura egon izan naiz beti neure buruarekin eta garai hartan, orain bezala, denbora asko ematen nuen irakurtzen.

Non ezagutu zenuen emaztea?

Biologia ikasten ezagutu ginen, Leioan. Bera bilbotarra da.

Eta erdibidean topatu zenuten bizilekua...

Bai. Ez genuen ez Bilbon ez Donostian bizi nahi, herri txikia nahiago genuen, eta Mallabia aukeratu genuen.

Aldaketa handia sumatu zenuen hona etortzean?

Beti bizi izan naiz erdigunetik urrun, baina hala ere hemen bizitza askoz lasaia goa da, zarata gutxiago dago, eta seguruagoa da umeentzat.

Sarritan bueltatzen zara Donostiara?

Bai, astelehenero bisita egiten diot amari eta elkarrekin bazkaltzen dugu.

Biologiaren esparruan lan egin duzu inoiz?

Ez, eta egia esan ez naiz sekula saiatu ere. Ikasketak bukatu nituenean beste lan bat neukan zain eta ordutik ostalaritzako zeregin ezberdinetan jardun dut.

Zein da gaur egun zure lana?

Mallabiko gimnasioko eta kantxako arduraduna naiz: zabaldu, itxi, bazkideen altak eta bajak kudeatu, makinaren zainketa, frontoiaren erresebak... Taberna ere nire esku dago, nahiz eta hau zereginik txikiena den.

Zer da lan horretatik gehien atsegin duzuna?

Bakardadezalea naizen arren, jendearekin egotea da lan honetan gehien estimatzen dudana. Pertsona askorekin egoten naiz, baina tarte txikietan, eta gustura nago harreman mota horrekin. Gustatzen zait ere kirolarekin harreman izatea.

Eta gutxiengiz?

Fakturak kudeatzea: lan nekagarria da!

Zer egiten duzu aisialdian?

Etxean egotea gustatzen zait, eta batez ere, irakurtzea.



Liburu kontuetan, zein genero duzu gustukoena?

Fantasiako liburuak, beldurrezkoak... Stephen King da nire idazle gustukoena eta bere liburu guztiak irakurri ditut, 60 bat, batzuk behin baino gehiagotan.

Zein liburu daukazu orain esku artean?

Egunotan bukatu dut Brandon Sandersonen *La guía del mago frugal para sobrevivir en la Inglaterra del medievo*.

Noiz irakurtzen duzu?

Gauean, lo egin baino lehen. Batzuetan bizpahiru liburu irakurtzen ditut aldi berean.

Papera edo liburu elektronikoa nahiago?

Biak. Papera nahiago dut, baina liburu elektronikoa erosoagoa da etxetik kanpo. Askotan Ermurako bidean oinez noanean, liburu elektronikoa irakurtzen joaten naiz.

Kirola praktikatzen duzu?

Lehen bizikletan ibiltzen nintzen, bai mendian bai errepidean, baina semeak jaio zirenean alde batera utzi nuen ia guztiz. Berririo ekiteko gogoia daukat.

Txirringularitza jarraitzen duzu?

Bai, lasterketa garrantzitsuenak ikusten ditut.

Zein da zure txirringularirik gustukoena?

Historikoen artean, Marino Lejarreta, zalantzarik gabe; gaur egungoa, Pogacar, agian.

Irratia, telebista, zinea...

Telesailak ikusten ditut batez ere, ordenagailuan, eta liburuekin bezala, beldurrezkoak eta fantasiakoak atsegin ditut. Askotan ere musika jartzen dut, eta goizetan albistegiak entzuten ditut gosaltzen dudana bitartean.

Oporretan...

Opor laburrak ditut, autonomia naizelako, eta azken urteotan Tarragonako kanpin batera joan izan gara semeekin. Bidean geldialdia egiten dugu Pirinioetan.

Plater bat aukeratzekotan?

Denetik jaten dut, baina aukeran, baba gorriak. Ostialero jaten ditut, etxetik kanpo.

Eguneko zure momentua...

Gosaria. Askotan ordubete ematen dut gosaltzen: laranja pare bat jaten ditut eta kafesnea galletekin edo tostadekin. Lasai-lasai ibiltzea gustatzen zait.

Elkarrizketa batean nahiago dugu entzun ala hitz egin?

Entzun.

Pertsona lasaia zara?

Ez, baietz ematen du, baina oso urduria naiz.

Zure lagun mina...

"Egunero irakurtzen dut, eta batzuetan bizpahiru liburu izaten ditut batera esku artean"

Bikotekidea da nire lagunik handiena.

Zure bertute eta akats bana?

Bertutea... ez dakit. Akatsa egoskorra naizela, burugogorra topera!

Badago egunero egin behar duzun zerbait?

Irakurri. Urtean egun gutxi pasatuko ditut ezer irakurri barik.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gauza askok.

Eta barrea eragin?

Gauza askok ere. Serioa ematen dudana arren, tontakeria asko egiten ditut, etxean batez ere.

Erraz haserretzen zara?

Esango nuke pazientzia handia daukadala, baina segun eta zeinekin errazago haserretzen naiz.

Puntuala zara?

Batere ez.

Zure bizitzako egunik zorionsuena?

Semeak jaio zirenean.

Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Ez.

Iraganera edo etorkizunera bidaiatuko zenuke?

Iraganera, agian, beste garai batera.

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Gauza asko, gehiegi, betikoak: gerrak amaitu direla, inork ez duela goserik pasatzen...

Eta herri mailan, badago hobetu daitekeenik?

Nerabeentzako kirol eta aisialdi aukerak falta dira. Asteburuan itxita dago dena, eta gazteek ondoko herrietara joan behar izaten dute.

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Ez, pozik nago egindakoarekin.

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

**mari
asun** 
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Enter
Informática

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Menduerrera 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

**solozabal
tabakoak**

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33




LA FORJA KAFETEGIA

1945

E R M U A

Kortezubin jaiotako Felix Mirandona Zabala, bere alaba Ane Miren Mirandona Idigorasekin San Pelaioko ermita pareko arbolapean. Bertan zegoen harrizko bankuan jezarrita, pozarren aitxa alabatxo jαιο berria eskuetan duela.



1997

M A L L A B I A

Argazki hau Mallabiko eskolan aterata dago 1997. urtean. Bertan agertzen dira Iratitz Udabe, Aiora Gomez, Luken Aranburu, Xabat Uzuriaga, Rosa Mintegi, Beñat Pildain, Leire Fuensanta, Ainhoa Urkiola, Yerai Astigarraga, Eñaut Gallastegi, Jon Ander Altube, Egoitz Txurruka, Asier Araiztegi, ????? eta Eneko Zalduegi.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako, jardun partziala (ordutegia adostuko da). Bidali CV hortzklínika.4@gmail.com helbidera.

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsaldez. C1 ingelesa eta euskara. 688739358

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsaldez zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.

Mutil langile eta arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Atsegina eta adikorra. 632 708 954.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com Azken eguna: **Martxoaren 17a**.




Otsailaren 25ean

Zorionak **Enara!** 18 urte beteko dituzu! Neska betetan berezia zara! Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Martxoaren 4an

Zorionak **Ane!** 8 urte ze arin pasatu diren! Musu handi bat familia guztia- ren partez. Maite zaitugu.



Otsailaren 12an

Mare, zorionak! Nahiz eta nagusia izan, gure neskatxoia izango zara beti, eta zure xarma mantenduko duzu. Asko maite zaitugu.



Otsailaren 19an

Zorionak **Oihan!** 6 kandelak zure pasteltxoan, zu bai mutil handia! Gozatu egunaz, txapeldua! Patxo erraldoi bat, Nahiaren partez bereziki!



Martxoaren 1ean

Zorionak gure txirrindulari onenari! Segi pedalei ematen txapeldua! Etxeko denon partez muxu ta besarkada handi bat! Aupa **Ander!**



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com





SEHIGA

PROTECCION LABORAL
PLAN BARRERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

Silvia

peluquería

688819336





30 MARTXOKO AGENDA

ZINEA

1etik 3ra:

"Bridget Jones. Loca por él" +
"A different man"

8tik 10era:

"The brutalist" + "Bodegón
con fantasmas"

15etik 17ra:

"La última reina" + "Nosotros"

22tik 24ra:

"El secreto del orfebre" +
"La acompañante"

29tik 31ra:

"A complete unknown"
+ "Daniela forever"

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 6:

"La semilla de la higuera
sagrada"

Hilak 13:

"Becoming Led Zeppelin"

Hilak 20:

Laburbira (film laburren
emanaldia)

Hilak 27:

"Mi única familia"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

HAURENTZAKO ZINEA

Hilak 2:

"Basatiak"

Hilak 9:

"Mary Superchef"

Hilak 16:

"Los exploradores"

Hilak 23:

"Paddington. Aventura en la
selva"

Hilak 30:

"Looney Tunes. El día que la
tierra explotó"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 14:

Kontzertua: Merino.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €

Hilak 15:

Blues Kontzertua: Bal-
ta Bordoy & The Bad Boys.
20:00etan. Lobiano Kultur-
gunean. Sarrera: 10 €

Hilak 22:

Abesbatzen kontzertua:
Atxaxpe (Sopuerta) eta Pis-
pillu (Ermua) abesbatzak.
19:45ean. Santiago elizan.

ANTZERKIA

Hilak 6:

"La reina del Arga", Este-
fania de Paz Asín-en eskutik..
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €

Hilak 22:

"Ni flores, ni funeral, ni cen-
izas, ni tan tan", La Dramática
Errante. 20:30ean. Ermua An-
tzokian. Sarrera: 10 €

ERAKUSKETA

Hilaren 3tik 15era:

¡Cuando espabilamos! Er-
muko Emakumeen Sustape-
nerako Zentroaren historia
argazkietan. Lobiano Kultur-
gunean. Ordutegia: 9:00eta-
tik 21:00etara, astelehenetik
ostiralera; eta 8an eta 15ean,
larunbata, eta 9an, igandea,
11:00etatik 13:00etara. Mar-
txoaren 3an, 18:00etan, ESZ-
ko ikasle ohien aurkezpena.

HAURENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 8:

Ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean. Lobianon.

Hilak 22:

Ipuin-kontaketa. 17:30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 28:

"Ostirala iritsi da", Porrotx,
Marimotots, Pupu eta Lore.
17:00 eta 19:00etan. Ermua
Antzokian. Sarrera: 6 €

BESTELAKOAK

Hilak 15:

Sagardo eguna. 12:00etatik
aurrera. Plazan.

Hilak 15:

Aldibereko puzzle lehiake-
ta. DANAK kaltetatukoan al-
deko ekitaldia. 11:00etatik
13:00etara. Merkatu plazan.

Hilaren 17tik 23ra:

Kazoltxoen astea. Ermuko
tabernetan.

Hilak 22:

Mahai-jokoan jardunaldia
11:00etatik 14:00etara eta
16:30etatik 18:30etara. Mer-
katu plazan.

INAUTERIAK

Martxoak 1, larunbata

12:30 Mozorro lehiaketaren
kuadrillen kalejira.

13:00 Kalejira Irulitxa txaran-
garekin.

17:30 Umeentzako txoko-
latada.

18:00 Umeentzako dantzal-
dia Zirika Zirkus taldearen
eskutik.

19:00 Kalejira Irulitxa txaran-
garekin.

19:30 Umeentzako mozorro
lehiaketa.

20:00 Diskofesta Maximun-
sekin.

23:00 DJ Festa Festa Los 40re-
kin.

Martxoak 4, astearte

16:30 Umeentzako diskoteka.

19:30 Erromeria Ekhy taldea-
rekin.

23:00 DJ Festa Oihan Vega-
rekin.

Ekitaldi guztiak Orbe Kardi-
nalaren Plazan.



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Otro Plan
como en casa
Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA



Desde 1971

**ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
ZORU ERRADIATZAILEA
AEROTERMIA**

Erakusketa 943 17 15 56
Tallerra: 635 998 881
fontaneriavalle@gmail.com
Golenkale z/g (15 zkiaren parean)
ERMUA

PERTSIANAK



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ITURGINTZA



24 orduko zerbitzua

**ITURGINTZA
KONPONKETAK
GREMIO GUZTIAK**

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

ERROTULAZIOA



Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

**ROTEK
LED PANTAILAK**

ITURGINTZA

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA



PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26 · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA



ELECTRICIDAD
BETA^{CB}
**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PARERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692